

DETROITEKO ERAKUSTAZOKA



■■■**CHRYSLER CROSSFIRE.** Detroiteko Erakustazokan arreta gehien bereganatu duen autoa izan da. Kirol izaerako auto zoragarri hau Amerikako filosofia daraman coupea da. Ezaugarri ederrak ditu: 2,7 (V6) litro, 275 zaldiko potentzia duen motorra; Otik 100era iristeko ,5,7 segundo baino ez ditu behar. Abenduan Espainiako merkatuan izango da.



■■■**CADILLAC CIEN.** Detroiten izan den beste sentsazioetako bat dugu auto hau. 7,5 litro eta 750 zaldi iristen dituen Northstar XC 12 motorrarekin hornitu dute. Mandoak bolantean dituen abiadura kutxa erdi automatikoa darabil. Auto honen lerroak F-22 borroka hegazkinetik hartu dituztela esan daiteke. Cadillacek aurtan beteko duen mendeurrena ospatzeko jarri diote Cien izena.

Kirol autoak, noranahikoen aurretik

Azken urteotan, noranahikoek beren nagusitasuna eta etorkizuneko bideak jarri dituzte Detroiteko Erakustazokan, baina aurtan, kirol izaerako autoak izan dira protagonistak

ALDIKAR AUTOAK

Colon pasealekua, 27
DONOSTIA
Tel.: 943 270 999
Oria hiribidea, 6.
LASARTE
Tel.: 943 376 515

MODELUA: GALLOPER SANTAMO LUXE
NOIZKOA: 1999. URTEKOA

MODELUA: GALLOPER EXCEED 2,5TD
NOIZKOA: 1998. URTEKOA

MODELUA: MITSUBISHI SPACE STAR 1.3
NOIZKOA: 2000. URTEKOA

MODELUA: MITSUBISHI GALANT 2.0 TD
NOIZKOA: 2000. URTEKOA

MODELUA: MITSUBISHI MONTERO 2.8 TDI
NOIZKOA: 1997. URTEKOA

MODELUA: MITSUBISHI CARISMA 1.9 TD
NOIZKOA: 1999. URTEKOA

MODELUA: JEEP G.CHEROKEE 5.2
NOIZKOA: 1997. URTEKOA

MODELUA: DISCOVERY 2.5 TD
NOIZKOA: 1997. URTEKOA

MODELUA: NISSAN ALMERA 2.2 DTI
NOIZKOA: 2000. URTEKOA

MODELUA: NISSAN PRIMERA 2.0 SLX
NOIZKOA: 1990. URTEKOA

MODELUA: NISSAN PATROL GR
NOIZKOA: 1992. URTEKOA

MODELUA: OPEL ASTRA DTI
NOIZKOA: 1999. URTEKOA

MODELUA: OPEL ASTRA 1.6
NOIZKOA: 2000. URTEKOA

MODELUA: RENAULT CLIO 1.4 ALIZE
NOIZKOA: 1998. URTEKOA

MODELUA: FOCUS TD
NOIZKOA: 1997. URTEKOA

MODELUA: FOCUS 1.6
NOIZKOA: 1999. URTEKOA

Urte berriarekin, hasi dira autoen erakustazoka nagusiak. Los Angelesko Erakustazokak hasi zuen *lasterketa* hori, eta hilaren erdialdean eta bukaeran izan diren erakustazokek, Detroit eta Bruselakoek, aurtengo ildoak ezar ditzakete.

Gehigarri hau amaitzerakoan Bruselako erakusketa irekita zegoen oraindik, beraz Detroiten ikusi denaz hitz egingo dugu.


Detroiten dute egoitza munduko auto fabrikatzaile nagusiak. Bertan daude Chrysler, Ford eta General Motorsen egoitza nagusiak, eta 600.000 biztanle dituen hiri honetan, %85ek lantergi hauetakoren batean lan egiten dute.

Ikusmin handia zegoen erakusketa honek emango zuenaz, eta galdera asko egiten zituen jendeak Detroiteko Erakustazoka hasi baino lehen. Nolakoak izango dira etorkizuneko autoak? Errepideetatik bidaia-tzeari utzi eta hauen gainetik hegan egiten hasiko al gara? Zer gertatuko da gasolinarekin? Pilak edo hidrogenoa erabiliko al ditugu erregai gisa? Galdera hauek galdera izaten jarraituko dute oraindik ere, baina, agian, ez da denbora asko pasatuko erantzunak begi bistan ikusi arte.

Detroiteko Erakustazokan aldaketa garrantzitsu bat gerta-



■■■**DOGDE RAZOR.** 60ko hamarkadan Europako errepideak zeharkatzen zituen kirol autoetan oinarriturik dago prototipo hau. Chryslerrek sortutako 4 zilindro eta 250 zaldiko motorra darabil.



■■■**SAAB 9.3X.** Monobolumen arin baten itxura duen prototipo honek 2.8 litroko V6 eta 280 zaldiko turbo motorra darama. Saabeko arduradunek kargarako gaitasunari garrantzia eman diote.

tu da. Azken urteotan *pick-up* edo *track* ibilgailuek (monobolumenak, noranahikoak eta *pick up*-ak uztartzen dituen autoak) ziruditen etorkizunean arrakasta gehien izango zuten modeloak. Bada, aurtan ikusitakoaren arabera, usteak erdi ustel gertatu dira. Aurtan, kirol izaerako autoak izan dira Detroiteko Erakustazokako izar nagusiak, eta bereziki, 50-60 hamarkadetako ezaugarri edo ukituekin egindako cabrioletak.

Baina zergatik gertatu da hain aldaketa bat-batekoa? AEBetan izandako autoen matrikulazio kopuruak handia izaten jarraitzen du. Honek ahalegin handia

eskatzen die enpresa handiei merkataritza emaitza onak lortzeko, eta ondorioz, urduritasuna sortu du auto industria erraldoi hauetan.

Kostu txikiak

Garai batean noranahikoek «mundua eraldatuko zuten makina» izango zirela ziruditen. Marka guztiek 4X4ren bat zuten beren eskaintzan. Honek abantaila ere bazuen; alde batetik, ez direlako gainerako autoak bezain sofistikatuak, eta bestetik, turismo bat egiteko baino kostu gutxiagoa eragiten dutelako. Honegatik guztiaga-

tik, noranahikoek arrakasta izan dute azken urteetan, baina laster etorri dira arazoak. Ibilgailu hauek altuak dira, pisu askokoak, zoru edo bide txarretatik ibiltzeko prestatutako esekidurekin horniturik doaz, eta egonkortasuna bigarren mailan geratu da. Bestetik, gidariekin ez dute auto hauek gidatzeko adinako esperientziarik, eta ondorioz, istripu askoren errudunak izan dira noranahikoak Estatu Batuetan. Hau dela eta, arriskutsutzat hartu dituzte auto hauek. Gainera, istripu frogetan turismoek baino nota kaskarragoak lortu dituzte, eta iraultzeko joera handia dute,